

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko irailak 17

204. zenb.

AEDk 10 urte  
**Ospakizun  
egitaraua**

Elkarrizketa  
**ñigo Ramirez**

**Erleen  
emaitza ezitia**





# Jose Aranzabal

**Jose Aranzabal eta Fagor Sukaldeak 16 urte elkar lanean**

**S. Andres Auzoa - Tfnoa: 79 18 92**



13tik 30era itxita


oporreatatik

ZUHAITZ

JATETXEA

AFARI ETA  
BAZKARI  
EDERRAK!

Tfnoa: 71 46 08

I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
AFerreries kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiarren  
laguntza jaso duAldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# krisia, krisia, krisia, krisia, krisia,...

**K** Kaixo Jon:  
Joan den astean idatzi behar nizu-  
la eta, ez dut beste astebete pasa-  
tzen utzi nahi izan pare bat gauza zuri  
komentatu gabe.

Ziur aski aho eta paper ugaritan entzun-  
go zenuen krisia hitza azken urteotan. Kri-  
sia. Zorioneko krisia. Nik, neuk, sinistu, ez  
dut somatu larregi zama hori. Egi egia,  
konturatu ere ez esan ez balute. Beti bezain  
ongi bizi naiz txintik ere aurreratu ezinik,  
lanean disgustora eta txaletik gabe orain-  
dio. Abuztuan Arrasaten beranean geratu  
diren zakur deslaidiak bezalaxe esango nuke.  
Zakur deslaidiak.

Jon, krisia ez da diru kontua kasu guz-  
tietan. Krisiak komunikazio arazo izaten  
ere badaki.

Nonbait irakurri dut, lagun, agian ames-  
tu egingo nuen, ez dakit,  
gizakiak zakurra gizon-  
txo bihurtua duela geure  
mundu garatu honetan,  
akaso gizonak betida-  
nik jangoiko izateko  
duen premia latzak  
bultzatuta. Eta zaku-  
rrak, Jon, jangoiko  
bihurtu du gizakia.

Ene laguna,  
zakur deslaidiek  
Arrasaten  
beranea-  
tzen dute,  
gizakien  
komunika-  
zio arazok  
biletea  
emanda. Autorida-  
deek, Euskadin. Nolatan  
jakingo dute autoridadeok-

zakur deslaiden kontua beti Euskadin barrena  
beranean dabiltzala. Nolatan jakingo dute,  
gizontxo moderno horiek ez dutela suizidio-  
aren errekurtsorik ezagutzen. Nolatan jakin  
zakurren osasun kontrola ezinbestekoa dela.  
Zakur jabeen kontrola nahi dugula desidia  
hori onartzen ez dugunok.

Krisia, zorioneko krisia, Jon adiskidea.  
Krisiak komunikazio prolema izaten ere  
badaki.

Autoritateak krisian daude, ez baitute  
paroa ofizialki kobrateko aukerarik izaten.

Botere eragilea krisian dago. lan gehiegi  
eta zakurrak atenditzeko instalaziorik gabe.

Hiritar batzu ere, Jon, ez dakit honelako  
eskenarik suertatu zaizun, krisian daude, be-  
ranean biletea komunikazio eta heziketa ga-  
beziak emanda. Zakur deslaidiak larrutan da-  
biltzala korroa

eginez, komu-  
nikazio arazoa  
gogortzen zai-  
la hankartean.

Ene laguna,  
zakur deslaiden  
kontua konpon-  
tzeko eskatu be-  
har diegu argienei.  
Esijitu ez.

Batzutan, Jon-  
txu, Lezetxikitik  
hurbilegi sor-  
tuak garela  
amesten dut.  
Hori bai, kri-  
siaz hitzegite-  
ko kapazitate  
ikaragarriarekin  
sortuak.

**JON IÑAKI LASA**

**ZABORRAK**  
ORDUTEGIA: 2130-2135



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Baulista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñhntza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopl, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Luis Fernandez



**UNED-BERGARA**  
IKASTETXE ELKARTUA

**1993-94 IKASTURTERAKO  
MATRIKULA EPEAK**

**Lehenengo epea:**  
Irailaren 15etik urriaren 15era.  
**Bigarren epea:**  
Urriaren 1etik 30era.

**Argibideak:**

San Martin Agirre Enparantza, zg/69 Apto(a)  
Tfnok: (943) 76 13 42 - 76 13 43 - 76 29 62

**Bulego orduak:**

asteartetik ostiralera 10,30etatik 12,30etara  
goizez eta 17,30etatik 20,30etara arratsaldez.  
Larunbata goizez 9retatik 12etara.

**ZENTRO**

**PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**




Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ARTOLA  
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATE

**Memesa**  
**79 42 22**



**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**Roneo UCEM-eko  
auzia**

**P**asa den uztailaren 13an, zuzendaritzak Enpresa Komiteari Roneo UCEM S.A.ren biabilidade plana eman zion. Plan horretan, beste neurri batzuen artean, 74 langileren despidoa eta 1993-94 urteetan soldata igoerarik ez dela izango aurreikusten da.

Enpresak, reszizio espedientea uztailaren 20an aurkeztea nahi zuen. Sindikatuek ez zuten asmo hori onartu, eta akordio batera iritsi zen, hau da, biabilidade planari buruzko negoziazioak irailaren 13 arte zabalik irauten.

Epe honen barruan enpresa zuzendaritzarekin lau bilera burutu ditugu. Alde Sozialak aurkezten duen Plan Alternatiboan despidorik ez da aurreikusten. Hala ere, zuzendaritzak, behin eta berriro sindikatuen planteamenduei uko egiten die, honen aurrean sindikatuek egindako negoziaketak adar jotze hutsa besterik ez direla izan, diote.

Bide honetan 13an, astelehenean, enpresak kontratuen reszizio espedientea banatu die sindikatuei, 74 langilerentzat, hain zuzen ere. Honen ondorioz, sindikatuek deialdi bat luzatzen dugu, datorren irailaren 20rako, 5.30etan, non lanpostuak mantentzeko mobilizazioak aztertuko dira.

**LAB SINDIKATUA**

**Kojon Prieto eta  
Huajoloteen  
rantxera  
jasanezinak**

**K**ojon Prieto hemen, Kojon Prieto han. Ixa ez dago beste gauzarik entzuterik geure tabernetan. Zelan da posible hain grupo txarrak horrelako arrakasta izatea? Rantxerak kantatzen dituen talde batek arrakasta daukala Euskal Herrian? Zeinek sinistuko zuen hori orain dela bi urte? Orain, euskal rokeroei rantxerak gustatzen omen zaizkie! Hau dok hau!


Neri ez zait gustatzen musika mejikanoa inondik inora, baina uste dut gustoak libre direla. Hortik zehar ibiliko dira rantxerazaleak, gure gurasoak Panchos-zaleak izan diren bezala. Baina, galdetzen diot nere buruari, rantxerak gustatzen zaizkionari ere gustatuko al zaio Kojon Prieto? Ez ote zaio suzedaneo txar eta estupidotxo irudituko?

Moskor kuadrila bat rantxerak kantatzen hasi dira, eta sekulako exitoa izan dute. Euskal musika bere zulo beltzenean dabilenaren seinalea izango da hau, uste dut nik. Ze gusto txarra daukagun, penagarria benetan.

**GAZTE BAT**

**Edozein keja,  
komentario,  
burutazio dauka-  
zula? Idatziguzu  
gutuna eta gusto  
handiz argitara-  
tuko dugu. Idatzi  
20 lerrotik gora  
eta eman zure  
izena, N.A.M. eta  
telefonoa harre-  
manetarako.**

# Zer iruditzen zaizu Maltzaga-Urbina autopista?



**Premi San Pedro Ikaslea (18 urte)**

Autopista egitea ez zait ondo iruditzen. Batez ere, horrek mendiak eta apurtzea ekarriko duelako. Gainera, 20 kilometrogatik ordaindu behar izatea uste dut ez dela zuzena.



**Mari Mar Martin Komertziantea (41 urte)**

Hoberako bada, hau da, errepide honek ataskoak eta kentzea ekarriko balu, ba ondo.




**Carlos Zubibarren Langilea (36 urte)**

Garbi daukadana da bidea konpondu behar dela, orain zer egin behar den? Autopista, errepidea...hori ez daukat oso garbi.



**Yolanda Herrera Langabetua (21 urte)**

Ez dakit ezer proiektuari buruz. Baina ez litzateke txar-to egongo bailaran autopista bat egitea.



**Pili Etxebarria Ikaslea (22 urte)**

Ez daukat horri buruzko informaziorik.




**Juan Jose Guridi Roneoko langilea (51 urte)**

Informazio gutxi daukat eta gainera baino ez dut eza-gutzen gai hau. Interesgarria litzateke nire ustez, proiektua nolakoa den ikustea.



**Pilar Balanzategi Dendaria (46 urte)**

Nire ustez bailara nahiko hondatu dugu, beraz, hobeto ditugun errepideak zabalduko bagenitu, eta ez berriak egin.



**Ramon Jausoro Jubilatua (70 urte)**

Hobe autobia egingo baltute, ordaindu barik betik hobeto.



## ESKERRAK EMANEZ

IÑAKI MUGIKA JULDAIN, ABUZTUAREN 31N ARRASATEN HIL ZEN. GOIAN BEGO. BERE FAMILIAK ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI DIZKIZUE SAMIN AGURRA BIDALI ETA BERE ALDEKO HILETA ELIZKIZUNEAN PARTE HARTU ZENUTENEI.

**EZKERRONEZ,  
ETXEKOAK**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larnaldiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	71 44 52
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udalzainak</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
<b>Garraioak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterongo liburategia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 17**  
Egunez: Amezuza, Santamaina.  
Gauetz: Amezuza, Santamaina.
- Larunbata 18**  
Egunez: Ruiz, Maala.  
Gauetz: Ruiz, Maala.
- Igandea 19**  
Egunez: Morales, San Andres.  
Gauetz: Morales, San Andres.
- Astelehena 20**  
Egunez: Azkoaga, Ferrerías.  
Gauetz: Azkoaga, Ferrerías.
- Asteartea 21**  
Egunez: Español, Iturriotz.  
Gauetz: Español, Iturriotz.
- Asteazkena 22**  
Egunez: Corcuera, Musakola.  
Gauetz: Corcuera, Musakola.
- Osteguna 23**  
Egunez: Irizar, Erguin.  
Gauetz: Irizar, Erguin.

**17 OSTIRALA**

**ZINEA**

“La ciudad de la alegría” 7 eta 9,30tan

**ERAKUSKETA**

«Bergarako Margolaritza Ortomovon» izeneko erakusketaren hasiera. Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.

**HITZALDIA**

Gaia: Itoizko urtegia. Monterongo hitzaldi aretoan, 19,00tan.

**URRETXUKO JAIK**

Rock jaialdia. Lin Ton Taun eta Anje Duhalderen eskutik. Gaueko 12etan.

**18 LARUNBATA**

**ZINEA**

“Atrapado en el tiempo”

**ESKUBALOIA.**

J. RAMON ARANA 2. MEMORIALA  
Emakumeen ohorezko mailako bi talderen artean: Corteblando-Bidebieta eta Hernani. Aretxabaletako kirol etxean. Arratsaldeko 6.30tan.

**URRETXUKO JAIK**

Txistulari kontzertu berezia. Gaueko 11etan. Lizeoko Enparantzan.

**MANIFESTALDIRAKO AUTOBUSAK**

Datorren larunbatean, Donostian egingo den manifestaldira joateko autobusak antolatu du herriko komiteak. Autobusez joan nahi baduzu, izena eman Irati, Biona edo Etxerat tabernetan. Autobusa arratsaldeko 3,30tan irtengo da Arbolapetatik

**BESAIDE EGUNA**

Hildako mendizaleen oroimenez, Besaide eguna ospatuko da igandean. Goizeko 10,30tan txalaparta izango da, 11,00tan Bixente Goikoetxea Abesbatzarekin Meza Santua. 11,30tan euskal mendizale federakundearen presidentearen agurra. Ondoren, 11,45tan Aramaioko “Lagun Artea” dantza taldearen saioa. Goizari bukaera emateko, trikitixa egingo da.



**UNED-eko IKASTAROA**

“Literatura Garaikidearen Lehen Hitzak” izenpean ikastaroa antolatu dute. Ikastaroak 75 eskola-ordu izango ditu eta larunbatetan izango dira. Larunbatero ordu t’erdiko bi saio izango dira, Xabier Pardo eta Tere Irastortza irakasleekin. Gainera, beste zenbait irakasle eta idazleren hitzaldiak ere izango dira

LITERATURA GARAIKIDEAREN LEHEN HITZAK

1995 - X - 30 / 1994 - V - 28

**20** ASTELEHENA**ZINEA**

"Atrapado en el tiempo"

**ODOL EMATEA**

Arrasateko anbulategian.  
4,30etatik, 8etara.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA**

San Andresen. Alkatetzan.  
Goizeko 12etatik 13etara.

**JO TA SUE TALDEAREN BILERA**

AED-ko elkartean eguerdiko  
12etan. Gaia, Jo ta Sue  
taldearen sorrera eta orain  
eskuartean duen proiektua.

**URRETXUKO JAIK**

Txiste Lehiaketa Abenidan.  
Iluntzeko 8,30etan.

**ALDERDI EGUNA**

**Arrasateko EGIk auto-  
busak antolatu ditu  
hurrengo asteburuko  
Salburuako EAJren  
Alderdi Eguberako.  
Izena 20a baino lehen-  
ago eman behar da  
Batzokian.**

**IKASTAROAK  
ESKORIATZAN**

Eskulanak egiten ikasteko, ikas-  
taro desberdinak antolatu ditu  
Eskoriatzako Kultur Etxeak. Izen-  
emate epea irailaren 20tik 30era  
dago zabalik, eta ikastaroa be-  
rriz urrian hasiko da

**21** ASTEARTEA**ZINEA**

"Atrapado en el tiempo"

**ODOL EMATEA**

Anbulategian.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA.**

Abaroan. Goizeko 12etatik  
13etara.

**DEBA GARAIKO ONDA-  
REAREN ZAINTEA**

Hizlariak Bittoriano Gandiaga,  
Juanxo Madariaga, Jerardo  
Elortza eta Lurdes Romano.  
Deba Garaiko ondarea zein  
den eta Kapiroko elkartearen  
helburuak zeintzuk diren  
azalduko da. Arratsaldeko  
7etan, Bergarako UNEDeko  
aretoan.

**IMANTERAPIA IKASTA-  
ROA**

**Erreuma, artrosis,  
nekadura, diabetes,  
zirkulazio,  
asma...bezelako gaiso-  
tasunak dituztenei  
zuzendua. Ikastaroan  
gaisotasun hauei  
buruzko informazioa  
emango da, eta lasai-  
tzen ere erakutsiko da.  
Ikastaroa Arantzazun  
emango da, irailaren  
24, 25 eta 26ean.**

**22** ASTEAZKENA**ODOL EMATEA****GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA.**

Uribarri (jubilatuen etxea)

**23** OSTEGUNA**ZINEA**

"Dracula" eta "Daniel el  
Travieso"

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA.**

Santamaina (jubilatuen etxea)

**UNIBERTSITATERAKO  
AUTOBUSAK**

Bilbora, unibertsitatera egunero  
ikastera joan behar baduzu,  
autobusak antolatu dira. Izena  
emateko dei egin (94) 6816104  
edo (94) 6201404 telefonoeta-  
ra.

**ENPRESAK ERATZEKO GAZTEENTZAKO IDEIA-  
LEHIAKETA**

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatuta. Baldintza, 18tik  
30 urtera bitartekoa izatea. Proiektua aurkezteko epea, urria-  
ren 14ean bukatuko da. Lanak, Kultura Saileko Lurralde  
Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dira

“Alkate edo zinegotzi izatea gustatuko litzaidake, esperientzia bezala, sekula ere ez naiz Udaletxe batetik pasa eta. Horrelako lekuetan gauzak hur-biletik ikusten dira eta hori oso ona da politikari batentzat”

Esther Larrañaga 93-9-9



“Neure burua ikusten dut ‘zertarako galdetuz’. ‘Zertarako sufritu eta bizitza arriskuan jarri pakean dagoen mendi tontor horretara igo eta berriro jeisteko?’ (...) Pozten naiz halere, K-2koak etxera itzuli izanaz, eta are gehiago, joateko dirua eman zietenak ere pozteaz. Publizitatea publizitate dela ahaztu gabe, oso detaile polita iruditu zait espediziorako dirua jarri zuen erakunde batek itzultzerakoan zorionak eman izana. (...) Inon idatzi gabe, barren-barrenean horrela sentitzen dugunok, jaso ditugu gure zorionak joan zirenak etorri direla ikusita”.

Arantxa Iturbe 93-9-8



“Udaletxeek momentu bakoitzean behar den etxebizitza kopurua erakitzea modu eraginkorrean gestiona dezaten, administrazio ezberdinen arteko lankidetzeta eta kolaborazioa jartzea beharrezkoa da oinarrizko bi tresna hauek lortzeko. 1) Udal planeamenduak aztertu eta egokitzea, komunitateak botere publikoen hirigintza lanetik sortutako plusbalietan parte har dezan (...) 2) Tokian tokiko administrazioei arlo honetan hartu beharreko lan eta erantzukizunei heltzeko adinako baliabide ekonomikoak ematea (...)”

Iñaki Pierrugues 93-9-8



## Zergatik Arrasaten Museo Industrial bat?

**O**rain dela gutxi Monterroren, Unión Cerrajerari buruzko erakusketa bat antolatu zen. Erakusketa hau baliagarria izan zen, arrasatear asko kontura zitezen, ikusten ari zirena garrantzitsua zela geure historia sozialeko epealdi bat ondo ulertzeko.

Erakusketa honen inguruan mugitu ginen antolatzaileoi, iruditu zitzaigun Arrasatek bere museo industrialak edukitzeko urratsak finkatzen hasi beharra zegoela, eta orain hortantxe ari gara. Beste herrialde batzuk garrantzizkotzat jo izan dute, industrializazioaren lehen urratsak ezagutzea, horregatik makina zaharrak gordetzen eta dokumentuak biltzen ahalegindu dira. Guk geuk ere, ondare industrialak babestu egin beharko genuke. Hau lortu asmoz, eta berandu izan baino lehen, eskuartearen ditugun baliabideak aprobetxatu ditzagun.

Museoa baliagarria litzateke, gaur egungo garapen teknikoak, gizarte ereduak eta bizitzeko era ondo ulertzeko; gainera, guzti honen inguruan eztabaida pizteko egokia litzateke. Turismoa ere erakarriko luke, eta noski, hezkuntzarako izugarria litzateke era honetako zentru didaktikoa edukitzea. Museoa irekia eta bizia izango litzateke. Hau da, bere ateak guztiontzat egongo liriteke zabalik, eta erakusketaren inguruan ekintza desberdinak antolatuko genituzke.

Bukatzeko aipatu, guzti hau aurrera eramateko arrasatear guztion partehartzea ezinbestekoa dela. Era honetako proiektuetan memoria kolektiboak garrantzia handia du, eta historia, gainera, guztion artean eraikitzen den zerbait da.



Isabel Aramendia

Museo Industrialaren bideragarritasuna ikertzearen arduraduna



**CIM**

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKITA DAGO !

Hurbil zaitze gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54  
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



**IBABE GARAJEA**

Salmenta eta zerbitzua

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**UBERAN**  
Taberna salgai  
erraztasun handiak

Tfnoa: 76 25 99

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



**Extremadurako eguna**

Arrasateko Corazon de Encina elkarteak antolatuta, Extremadurako eguna ospatu zen joan den igandean Landako urtegian, Euskal Herriko hainbat elkarte extremeñotako partaideek. Extremaduraren eguna irailaren 8a da berez, baina igandera atzeratu zuten ospakizuna jai egunarekin bat egiteko. Dozenaka familia bildu ziren giro onean, nahiz eta Corazon de Encina elkarte-ko antolatzaileek jende gehiago espero zutela aitortu zuten.



**Klasera itzultzea**

Ikasgeletara itzultzeko astea izan da hau, OHoko ikasleentzat behintzat. Erguin, Musakola, eta San Andreseko herri eskoletan, San Viatorren eta San Frantzisko Xabierren, mila ikasle inguru itzuli dira jada eskolara. Beste ikastetxe batzuetako ikasleek, opor luzeagoak dauzkate. Almenen astelehenean hasiko dira, hilaren 20an, eta institutuan datorren asteazkenean, 22an. Eskolaratzen diren ikasleen kopuruan, eskolaurrean jaiotzen jaitsiera eragina izaten ari dela nabarmendu daiteke.

**MCCko epaiketako deklarazioak**

Max Center eskandaluko epaileak MCC kooperatiba taldeko lehendakaria, Javier Mongelos, deitu du deklaratzera. MCCk Barakaldon bultzatzen duen zentro komertzial handiaren inguruko txantaila kasua

argitzeko epaiketa berera PSOEko kargu nabarmenak deitu ditu epaileak, besteak beste Jose Luis Marcos Merino, PSE-EEko idazkari-ordea. Eskandaluaren jatorrian Barakaldoko zinegotzi batzuek MCCri egin nahi izan ei zioten txantaila salaketak daude.

**Eroski Donostian**

Eroskik Donostian eraiki nahi duen supermerkatuaren gaia Donostiako zezen plaza berriaren polemikarekin lotuta geratu da. Ilunbe eta Garbarako lur-sailetan hipermerkatua eta zezen-plaza eraikitzeko konbenioa onartu zuen joan den astean Donostiako udalak, oposizioaren aurkako jarreraz.

**JAIOTZAK**

- Mikel Naranjo Mogen. Abuztuaren 29an.
- Eduardo Ferrer Romero. 30an.
- M<sup>a</sup> Teresa Palacio Etxegoien. 30an.
- Ainhoa Izagirre Mendizabal. Irailaren 3an.
- Jokin Mugika Guridi. 4an.
- Nerea Gonzalez Hernandez. 8an.
- Maria Gomez Perez. 12an.

**EZKONTZAK**

- Elio Montecuzco Morosini & Miren Idoia Abarrategi Dominguez. Abuztuaren 28an, elizaz.
- Juan Jeronimo Iñurrieta Garcia & Ana M<sup>a</sup> Orbeza Nimenza. Irailaren 4an, zibilez.
- Jose Luis Aperribai Uribarri & Monica Andreia Melo de Lima. 4an, zibilez.
- Jesus Herrera Torres & M<sup>a</sup> Dolores Lobato Gonzalez. 4an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Ignacio Mugika Juldain. Abuztuaren 31an. 61 urte.
- Luz Divina Sanchez Garcia. Irailaren 2an. 83 urte.
- Maria Iñurategi Moyua. 7an. 84 urte.
- Ana Zubiaga Parrazar. 5an. 87 urte.
- Lucas Agirreurreta Larrea. 7an. 33 urte.
- Jose Fernandez Bula. 9an. 47 urte.
- Pedro Salgado Galan. 12an. 76 urte.

**Istripua Eskoriatzan**

Joan den asteko ostegun iluntzean pertsona bat hil zen Eskoriatzan trafiko istripu batean. Jose Fernandez Bulak, 49 urteko madrildarrak, Fagor-Ederlan enpresatik irten zuen bere autoarekin, M-8474-KU matrikulako Renault 21 batekin, eta VI-7725-K matrikulako kamioi batek aurrean eroan zuen. Kamioi gidaria arinki zauritu zen istripuan, baina auto gidaria hilda zegoen Gurutze Gorria bertaratu zenerako.



**ZORIONAK !!**

Parlance

Gure ikasleen  
% 99ak CAMBRIDGE  
azterketa gainditu du

93-94 ikasturterako  
matrikula zabalik

Ferrerias, 11 Behea Tfnoa: 77 06 83 ARRASATE



Autokarabanak alokatzen dira!

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkot piezak eta osagarriak.



# 3 IKASTARO:


## ✓ EUSKAL DANTZAK

- Hamalau urtetik gorakoei zuzendua
- Iraupena: urriak 8 - abenduak 17
- Ostiraletan, 7etatik 8,30etara
- Matrikula doan
- Plaza mugatuak



## ✓ ALBOKA

- Mailak: hastapena eta II maila
- Iraupena: urriak 23 - maiatzak 28
- Matrikula 2.000PTA
- Plaza mugatuak



## ✓ LARRUA LANTZEA

- Hastapen maila
- Iraupena: urriak 5 - abenduak 16
- Matrikula 2.000PTA (1.000 ikasle eta langabetuentzat)

IZENEMATE ETA  
INFORMAZIO GEHIAGOTARAKO  
GAZTEENTZAKO INFORMAZIO  
BULEGOA  
TFNOA: 77 00 65





Apirileko Bergara-Arrasate langileen martxa, lanpostu industrialen defentsan.

## Roneoko 74 langile kanporatzeko plana aurrera doa

Roneoko Arrasateko lantegian dauden 188 langileetatik 74 kaleratzeko espedientea aurkeztu du enpresaren zuzendaritzak Donostiako lan delegazioan. Astelehenean, azken negoziazio saio batean, kontseilari delegatua, Francisco Igual, eta ordezkari sindikalak bildu ziren, baina ez zen akordioirik iritsi.

LAB sindikatuan bideragarritasun plan bat aurkeztu zuen: bi urtez soldatak izoztea, ogitartekoaren ordu-laurdena ezabatzea eta plantilaren % 40a txandaka enplegu erregulazio sisteman jartzea hurrengo lau urteetan. Hori guztia, langilerik kaleratu barik. Egingdako kalkuluen arabera, 1995. urterako dirukontuak zenbaki positiboetan egongo lirarteke. Baina enpresak ez zuen plan hori onartu. Igual kontseilari delegatuaren iritziz, plan horrekin ez ziren kontuak biribiltzen, eta enplegu erregulazioak plantilarengan eragin ezkorra luke. Horrez gain, sindikatuen planak arazo koiuntural bat konponduko luke

kontseilari delegatuaren ustez, eta Roneoren arazoa estrukturala da, Igualen hitzetan.

Enpresak planteatzen duena plantilaren % 40 kaleratzea da, hori delakoan gaur egun Roneok duen mila milioi PTako zorra kitatzeko bidea. Aldi berean, plan estrategiko zabal bat diseinatu du zuzendaritzak, produktuak berritzu, sare komertziala berrantolatu, barne antolakuntza eta produzioa hobetu eta aurrekontuak egokitu asmoz.

Aipagarria da zuzendaritzak dagoeneko prestatu duela 74 kanporatuen zerrenda, baina langile sindikatuak ez dute nahi izan horren berri izaterik, izenak publiko egiteak langileen artean zatiketa ekar dezakeelakoan. Langileek asanblada izango dute datorren astelehenean, eta mobilizazio egutegia onar lezakete bertan, 74 kanporaketek izango luketen eragina kontuan izanda. Zuzendaritzak, aldiz, enpresa etorkizunean aberastasan iturri izaten segitzeko ezinbestekotzat jotzen du plantila murrizketa.

## Kanpazarko txatarrategia

Kanpazarrerako errepidearen ondoan, Meatzerreka inguruan dagoen txatarrategia erretiratzeko agindua eman du Udalak. Meatzerreka txatarrategi hau aspalditik dabil lanean, baina ez du sekula horretarako baimenik izan. Hori dela eta, zenbait errekurtsoren ondoren, udalak txatarrategia kentzeko agindua eman dio ugazabari, eta hilabeteko epea du bertatik txatarra eta hondakin guztiak bertatik eramateko, eta bestela Udalak eroango ditu.

## Duela hiru urteko faktura

Udalak duela hiru urte "ahaztutako" faktura bat ordaindu du aste honetan. 1990. urtean, Uherkapeko lanak hasi zirenean, bertan kokatzeko asmoa dagoen frontoia eraikitzeko lehen urratsak hasi ziren, eta Tecsa enpresak egin zituen lan haiek, 2,2 milioi PTako gastuarekin. Gero, ezaguna denez, lanak gelditu egin ziren eta polemika luze batean ataskatuta dago auzia. Bitartean, Tecsa enpresari ahaztu egin omen zitzaion fakturaren ordainketa eskatzea (nahiz eta kopuru polita izan), eta oraintxe bururatu zaie, hiru urte pasa direnean. Bitartean, Uherkapeko obrek ia "ahaztuta" segitzen dute, hiru urteko geldiunean.

AU-PAIR  
IRLANDAN

Informazioa:



PARLANCE

Ferrerias, 11  
Tfnoa: 77 06 83

TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

Basabe  
jatetxea

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Industrialdea

ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

"PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99



Ohizko egunez gain, astearte, ostegun eta larunbatetan ere saltzaile anbulanteak egongo dira.

## Azoka plazan taberna eta saltoki berriak irekiko dira

Azoka plazan saltoki postu gehiago jarriko dira aurtun. Saltoki berriak subasta sistemaz adjudikatuko dira. Metro karratuen arabera, lizitatzeko gutxieneko salneurri batzuk kalkulatu dira, eta hortik gora eskaintzen duenari eskainiko zaio saltokia. Eskae-rak egiteko epea irailaren 23an amaitzen da, udaletxean, eta hamabost eguneko epean erabakiko du Udalak.

Saltoki finakoak bost izango dira, bat ogia eta esnea saltzeko, bi harategi, eraikuntza materialak saltzeko bat, eta taberna-kafetegia bat. Hauen lizitazio kopurua, 1,3 milioi PTA eta 3 milioi PTA bitartean daude. Lizitazioaz gain, hileroko kuota bat ordaindu beharko

du adjudikazioa lortzen duenak.

Beste saltoki batzuk saltzaile anbulante-entzat izango dira. Lau saltoki astelehen, ostegun eta larunbatetan zabalduko dira, hiru fruta eta barazkienak, eta beste bat fruitu lehor eta azeitunena.

Beste bost saltoki ohizko azoka egune-tan egongo dira zabalik, asteazken eta osti-raletan. Batek meloiak salduko ditu udan, eta Gabonetako gozo eta janak neguan, bes-te bi fruta eta barazkienak izango dira, eta azkena gazta eta arrautzak saltzekoa. Finkoak ez diren saltoki kasuan, subasta prezioak 256.000 PTA eta 366.000 PT artekoak izan-go dira.

## Asfaltatzeko plangintza

Aurtengo kale asfal-tzeari buruzko plana onartu du Udalak aste honetan. 8 milioi PTA inguru inberti-tuko dira kaleak asfaltatzen, eta parterik handiena Musakolako aldeak orango du, 4,6 milioi PTA, eta beste 3,2 milioi Sailuente plaza asfaltatzen erabiliko dira, hau ere Musakola auzoan. Azkenik, 800.000 PTA Santa Mainako atzekaldea asfaltatzeko.

## Kooperatibetako ordutegia

Kooperatibisten Taldea egutegi eta ordutegi aldako-rrin aurka azaldu da. KTkoen iritziz, langileen osasun fisiko eta mentale-rako kaltegarriak dira gaur egunean aplikatzen diren ordutegi aldaketak. Dagoen lan-eskariaren arabera aste batzuetan 50 ordutik gorako jarduna izaten baita koope-ratiba batzuetan. KT sindikatuaren ustez, gaur egunean dagoen langabezia-rekin, kontrako joera bultzatu beharko litzateke, lanorduak gutxitu lanpos-tuak banatu ahal izateko.



IRAKASLE ESKOLA  
ESKORIATZA  
GIPUZKOA

**Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:  
1993 - 94 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dagoela**

### ESPEZIALITATEAK

- Haur eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA  
IRAKASLE ESKOLA  
Tfnoa: 943/ 71 41 57

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

# “Arrasate, duela 10 urtebaino euskaldunago”

Arrasate Euskaldun Dezagun-ek 10 urte beteko ditu azaroan. Urteurrena ospatzeko, ekintza egitarau zabal bat eratu du AEDk, eta asteazken honetan aurkeztu zuten udaltxean. Aurkezpenean, Txomin Otamendi eta Jesus Garmendia egon ziren, AEDko Lehendakari izandakoak, oraingo lehendakariarekin, Joxe Mari Mujikarekin.

10 urtez egindako lanaren balioa goraiatu zuten hizlariak. “Dudarik gabe, Arrasate duela 10 urte baino euskaldunagoa da”, esan zuen Otamendik. Euskal Herri mailan ere, gure herrian eratu denaren antzerako zerbait egiteko komenientzia aipatu zuen Garmendiak, eta Mujikak, euskalduntze lanean hiru zu-



Hitzarmena, AEDk bultzatutako ekintzetako bat

toin nagusi daudela esan zuen: administrazioaren lana, ikastetxeak eta euskara elkarteak. “Egindakoaz harro gaude, eta aurrera goaz”, esan zuen AEDko lehendakariak.

Urteurrena azaroaren

29an izango da, ordukoa baita AEDko lehen bilera akta. Ospakizunak, lehenago hasiko dira: urriaren 22an, haurrentzako jai erraldoi bat egongo da; 30 eta 31n herrietako euskara taldeen arteko

jardunaldi batzuk (talde hauek guztiak bilduko diren lehenbiziko aldia izan daiteke); azaroaren 8an, ekitaldi bat izango da Amaia antzokian (kantaldia edo antzerkia); 13an, herri bazkaria; 20 edo 27an, rock jaialdia; 26 eta 27an herri komunikabideen II. jardunaldiak izango dira, eta 29an itxiko dira ekintzak. ARRASATE PRESSEK ere zenbaki berezi bat aterako du.

Ospakizun egitarauarekin hiru helburu nagusi ditu AEDk, Juan Luis Arexola-Leibak azaldu zuenez. Batek, AED ezagutzera ematea; bigarrenik AED moduko beste elkarteekin loturak sendotzea, eta azkenik bazkideak proiektuaren garrantziaz jabetuaraztea. Urteurrenerako lema ere badago: “10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen”. Ospakizunek dirauten artean, AEDren gainerako jardunak bere hartan segituko du.

- Irakasle natiboak, profesionalak, titulu eta esperientziadunak
- Maila guztiak
- Ordutegia zure beharren arabera jarriko da



- Enpresentzako zerbitzuak: itzulpenak, interpretariak, e.a.
- Kalitatezko eskolak

## IDIOMASTER

**HIZKUNTZEKIN ZERIKUSIRIK DUENAK  
GUREKIN DU ZERIKUSIA**

NON GAUDEN?

Ferrerias, 44 • Tfnoa: 79 07 84 • ARRASATE



Cadiz-eko Conil herrian dagoen «Radio Juventud» irratia euskaraz emititu zuen udan. Ez ohizko gertakizun honen erantzulea, **Unai Iparragirre** arrasatearra izan zen. Unai, «Ordu batetik, hasta las dos» programa elebiduna egiten zuen irrati horretan. Saioan zehar gehien bat musika euskaldun, andaluziar eta atzerritarra jartzen zuen; eta telefono deiak ere erantzuten zituen.



Argazkian eskumatik hasita hirugarren dagoena, **Jorge Hugo Ortega** Ekuadortarra da. Orain dela gutxi Eskola Politeknikoan egon zen, beka batekin ikasten, eta Arrasaten egon zen denboran ezagututako bi arrasatear bisitatzera joan zaizkio. Jorgek ARRASATE PRESS-en agertzeak ilusio handia egingo liokela esan zien. Egia esan, ilusioa geuri egiten digu, jendea gure aldizkariak akordatzeko dela jakiteak!



**Entzuleak ere izango zituen Unaien programak. Izan ere arrasatear askok erabaki baitzuen, oporrak pasatzera Conilera joatea. Irratia entzuteaz gain, ikusten denez, afaririk ere antolatu zuten. Beraz arrasatear giroa izan zen jaun eta jabe, Cadizeko herritxo horretan.**

Argazki "fresko" honetako neska-mutikoak, Uztailen Olitera joandako neska-mutiko talde bat da. San Frantzisko elizak urtero antolatzen ditu udalekuak eta aurten, uztailearen 5etik 17ra, 65 bat ume joan ziren Nafarroa aldera. Konfirmazio klasetan dabiltzan 9 begiraleen ardurapean, Oliteko pizinetara joanez nahiz gauean jokuak eginez, egun ahaztezinak pasatu zituzten ume hauek.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheha Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETA**

Adi! zure laguntza behar dugu, irakurle: Argazki hau 1947an, Miranda de Ebro-ko sanatorioan ateratakoa da eta **Aita Jose Miguel Miranda Arraizak** ( argazkian frailez jantzita dagoenak) han ezagututako hiru mutiletako bat Arrasatearra da. Fraile hori azaroan etortzekotan denez, orain 70 bat urte izango dituen Arrasatear horrekin berriro elkartzea gustatuko litzaioke. Norbaitek arrasatorik aterako balu, jar dadila lehenbait lehen ARRASATE PRESSEKIN harremanetan.



## IZEN PROPIOAK

● **Isabel Aramendiak**, 29 urte, egingo du Arrasaten museo industrial bat egiteko asmoaren proiektua. Isabel arrasatearra da eta Historian lizentziatua. Honez gain, museoen heziketari buruzko postgraduatu kurtsoa ere eginda dauka.

● **Fran Fernandez**, 29 urte, Lagun Aroko zuzendari berria izango da.

Fran arrasatearra da, eta zuzenbidean lizentziatu zen. Orain arte ere, Lagun Aron ibili da lanean.

● **Ane Ruiz de Zarate**, 24 urte, eta **Ander Balzategi**, 26 urte, Almeneko irakasle berriak izango dira ikasturte honetan. Ane, ingeles filologian lizentziatua da, eta Anderrek ingenieritzako ikasketak ditu eginak.



**Mateo Larrañaga eta Eli Agirreurreta** uztailaren 7an ezkondu, eta ezkon bidaia egitera Cartagena de Indiasera joan ziren.



**Amaia Bergaretxe eta Xabin Llodio** uztailaren 24ean ezkondu ziren. **Zorionak!**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**A**

**ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**

 **77 05 65**

ORAIN

ARRASATEI

UNITED COLOR  
OF BENETTON

Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan)

Tfnoa. 79 50 78 ARRASATE



# ● Alberto Iñurreta eta Xabier Odriozola Gizonezkoen opresioa

**Gizarteak gizonengan egiten duen opresioa aztertuko duen ikastaro berezi bat antolatzen ari dira Alberto eta Xabier. Gizonei zuzenduko zaie ikastaroa, laster da hasitekoa eta Antzuolan emango dira klaseak. Jokamolde matxistek, azken batean, ez dituzte emakumeak bakarrik zapaltzen, gizonezkoak ere bai.**

— Zertan igartzen da gizonzkoen opresioa gaurko gizartean?

— Arazoa horixe da, ez dela ikusten halako opresiorik dagoenik. Esate baterako, zapalduta sentitzen ez den emakume bati, hori galdetzen badiozu, ez dagoela opresiorik erantzungo dizu baina zapalduta sentitzen den emakume bategi seguruenik mila arrazoi emango dizu. Txiki txikitatik hasi eta hil arte irauten duen opresioa da. Ikusten ez den opresioa, baina bai sentitu egiten duguna. Baina, gizonen opresioa berezia da, beti pentsatu izan da opresioa, talde batek bestea zapaltzen duenean gertatzen dela, baina


berezia da garbi ikusten ez delako gizona nork zapaltzen duen. Gizona ez du zapaltzen beste talde batek, gizarte osoak baino.

— Nondik dator gizonenganako opresioaren teoria?

— Elkar entzuketako ikastaro batzuetatik sortutako teoria da. Ikastaro hauetan opresio desberdinak lantzen ditugu eta opresio edo zapalkuntza bakoitzeko azterketa bat egiten da: gurasoekin, umeekin, gizonekin... gauzak aztertuz, norberak ere gero eta garbiago ikusten dituguzak eta guk gizonenganako opresioa ere garbi garbi ikusi genuen, esistitzen dela konturatu ginen.

— Euskal Herrian gauza berria da?

— Bai, Euskal Herrian nahiko gauza berria da, orain dela hiru urte sortu zen gutxi gorabehera, baina gizon talde bezala, ez gizon mugimendu bezala, gauza desberdinak dira. Dena dela, Estatu Batuetatik datorren korrentea da, orain dela hamabost urte sortu zen, eta Ingalaterran, berriz, orain dela 25 urte ezagutu zen,



baina teoria bezala, ez mugimendu edo talde bezala. Psikologia hau ezagutu zutenek, zabaltzeko beharra somatu zuten eta horrela heldu gara gaur egunera.

— Zein da ikastaro honen helburua?

— Helburu bikoitza jarraitzen dugu. Orain arte gizonen mugimenduetan eman diren urratsetan, gizartea aldatzeko asmoa igartzen da, baina elkar entzuketan, berriz, beharrezkotzat jotzen dugu gizartea aldatze horrekin batera, norberaren barneegoera aldatzea.

Guk emango dugun ikastaroan horixe da aztertuko duguna eta bi esparru aztertuko ditugu: norberaren barrua eta gizartea, biak elkarrekin lotuta doaz eta. Gizonezkoek zuzendutako ikastaroa izango da eta, Euskal Herrian lehenbizikoa izango dela esan daiteke.

— Nolako harrera espero duzue ikastaro honetan?

— Hurbilduko direnak, batzuk guztiz konbentzita etorriko dira eta beste batzuk kuriositatez. Esperientzia pilotoa izango da eta seguruenik Antzuolan emango ditugu klaseak. Lehenik eta behin, sei astetako ikastaroak antolatuko ditugu eta, astean behin emango da klasea. Eta azken saioan, sakondu nahi duten gizonetzat gizon taldea sortuko dugu.

Gauregun, sortuta dagoen gizon taldea, astero biltzen gara eta gai desberdinak aztertzen ditugu elkarrekin. Iraileko ikastaro honetan, Arrasateko partaideak ere espero ditugu, jadanik sortua dagoen talde honetan ere hartu baitute parte. Interesa duten gizon guztientzat telefono hau emango dugu: 76 58 37 telefonora dei egin dezake interesatuak eta Iñaki Matagatik galdetu.

● **“Hain onartuta dago gaur gizonenganako opresioa, ze ikusi ere ez da egiten; bai sentitu, ordea”**



Joxe Sagastak hirurogei erle ditu baserrian.

# Erleak zaintzeko zientzia

# Erlazantza, guztion

# mesederako

Maria Agirre

**Erlategi bat duenak, badaki zer duen. Eztia, polena eta argizaria bezelako erle produktu batzuk lortzeaz gain, erleak edukitzeak badu beste abantailarik. Erleek %85a polinizatzen dute, hau da, loreak ernaltzen dituzte. Beraz, erlategi baten inguruko fruta arbolek, askoz ere fruitu gehiago ematen dute.**

Arrasaten hogeitahiru erle daude. Honek ez du esan nahi, hogeitahiru insektutxo baino ez daudenik. Erle esaten dugunean, erlauntzan bizi den talde osoari buruz hitzegiten ari gara. Hala ere, bada, herri-rik kanpo erlerik duen arrasatearrik. Horietako bat dugu, Joxe Sagasta. Joxek, Eskorriatzako Bolibar auzoan duen baserrian, hirurogei erle ditu. Konkretuki zenbat erle dituen ezagutu nahi duenak, jakin beza erlategi bakoitzean,

70.000 erle inguru dituela.

## HIRUROGEI ERLE, HIRUROGEI ERREGINA

Joxek esan digunez “erlauntza bakoitzean beti dago erregin bat”. Erleak ondo ezagutzen dituztenak, kapaz dira 100.000 erleren artean erregina zein den antzemateko “mugitzeko duten eragatik jakiten dugu erregina zein den. Erleek, berriz, erregina bakoitzak botatzen duen usaiari esker dakite, zein ku-

txetan dagoen beren etxea”.

Erleen mundua harrigarria da, baina erlauntza batetan gertatzen dena ez da gutxiago. Bertan, bere zeregina zehaztua dauka erle bakoitzak. Erlamandoa, hau da, erle arra, umeak berotu eta nektarra al-mazenatzeaz arduratzen da, bestalde erregina berria egonez gero, berau ernaltzeaz ere arduratuko litzateke. Hala ere, erregina behin bakarrik ernaltzen da bizi guztian zehar, eta gero arraultzak egiten pasa-

tzen du bizi guztia. Erle meua, berriz, langilea deitua, garbiketaz, erreginak jarritako arraultzak zaintzeaz eta loreen nektarra ekartzeaz arduratzen da.

### EZTIA EZ DA PRODUKTU BAKARRA

“Erleek ezitia bakarrik ematen dutela ez da egia, eta ezitia erle kaka dela esaten dutenak ere ez dabilta zuzen”. Joxek argi eta garbi utzi nahi izan du, ezitia zer den: “Erleek loreen nektarra xurgatzen dute. Nektarraren % 60a ura da, eta bestea azukrea. Batutako nektarra erlauntzara eraman eta hezetasuna kentzen diote. Eraldakuntza egin eta gero, aberasketan sartzen dute, argizariz egindako eraikuntzetan. Horixe da ezitia”.

Honetaz gain, argizaria ere jasotzen da erlauntzetatik, ondoren kandelak egiteko edo haltzariei emateko erabiltzen dena. Erreginaren jalea ere, indarra ematen duela eta, oso ezaguna da. Jalea honetaz elikatzen da erregina bizi guztian zehar, horregatik bost urtez bizi izaten da. Beste erleek berriz, ez dute hori jaten eta uda partean adibidez, berrogei egun inguru bakarrik bizi izaten dira.

Jasotzen den beste produktu bat propolia da. Hau zauriak sendatzeko baliagarria da, erleek aldiz, erlauntzako zuloak estaltzeko erabiltzen dute.

### NEKAZARITZARAKO MESEDE

Joxek baserri inguruan fruta arbolak ditu, eta erlategia jarri zuenetik igarri du aldaketarik: “orain fruta arbolek fruitu gehiago ematen dute eta handiagoak gainera”. Horregatik frutazainek, erlate-

giak alokatzen dituzte, eta erlazainek hauek fruituak dituzten tokietara eramaten dute erlategia. “Nik neuk ez ditut eramaten, denborarik ez dudalako, baina posible da hori egitea”.

### ERLAZANTZA ELKARTEA

Gipuzkoako erlazainak ez daude bakarrik, laguntza handikoa zaien elkarteak dute atzetik: “Gipuzkoako Erlazainen Elkarteak”. Bertara jotzen dute, informazioa eskuratu, materiala merkeago erosi edo-

ta ikastaroren bat jaso behar dutenean. Elkarte honetan hogeitabat arrasatearrek dute izena emanda. Hauetariko bostek, Arrasaten bertan dituzte erleak, eta gainontzekoek herritik kanpo.

Inguruan erlategiak dituztenentzat, oraintxe da ezitia batzen hasteko sasoa. Joxek, erlategi handia duenez, 500 kilotik gora ezti jasotzea espero du. Aurten gainera, labelaz salduko dute ezitia eta administrazioetik ere laguntzak jasotzen hasiko dira.

## Eztiaren inguruan jakin beharrekoak

- Ezitia gauza askotarako da ona: bihotzarentzat, gibelarentzat eta baita ultzera dutenentzat ere. Zauriak sendatzeko ere oso ona da, kasu honetan nahikoa da zauria eztiarekin igurtzitzea.
- Inñarria sasoi honetan batzen den ezti moeta da. Zailena da batzeko. Garestiena ere bada. Txixa egiten laguntzen du.
- Ezti moeta batzuk gogortu egiten dira, eta beste batzuk ez. Horrek ez du esan nahi, bata bestea baino hobea denik.
- Erromero eta eukaliptus motatako eztiak, eztarria garbitzen laguntzen dute.
- Eztiak glukosa dauka eta hori zuzenean odolera joaten denez, diabetikoek ez zaie ezitia hartzea komeni. Bai, aldiz, erreginaren jalea eta polena.
- Erregina jalea hartzea oso komenigarria da kirola egiten dutenentzat, operazioen bat egina dutenentzat edo gaisoaldiren bat pasa berri dutenentzat. Indarra ematen du.
- Ezitia biguntzea nahi badugu, ez dugu 40° baino gehiagotan berotu behar. Berotzekotan mari bainutan berotu behar da.
- Eztarria garbitzeko: ur epe-la, limoia eta ezitia nahastuta hartu.
- Ezitia, haurtzaroan eta zahartzaroan kontsumitu behar da batez ere. Haurtzaroan hazteko eta zahartzaroan makalaldietatik irtezeko.
- Erle batek, ia miloi bat loreen nektarra xurgatu bahrara dauka 100 gramu ezti lortzeko.



Osasunarentzat lagungarri aparte da ezitia.

**G**

**“Gipuzkoako Erlazainen Elkarteak hogeitabat arrasatear dira bazkide”**



88-89 denboraldian ia 3. mailara igo zen taldearen alineazio bat.

# San Andreseko Pedruskok ez du jokatu aurtan

**San Andres** futbol taldeak, betiko Pedruskok, ez du aurtengo denboraldian konpetiziorik jokatu. Mondragon Futbol Taldearekin bat egiteko saialdi batek kale egin eta gero, airean geratu da San Andres kluba, eta gainera nahiko harreman hotzean geratu dira Mondra eta San Andres. Pedruskoren arduradun

nek, dena den, taldea bizirik dagoela diote, eta aurtan ez bada, datorren urtean berriro martxan egongo direla.

Azken hilabeteetan, Mondra taldearen filiala bihurtzen saiatu da Pedrusko: Udalak eta AUKEA elkarteak herrian futbol klub bakarra egon behar zuela esan zuten, eta horretarako urratsetan hasi zen

Antonio Bastida 'Toñin', San Andres taldeko lehendakaria. Filiala bilakatzeko jokaldia, hala ere, Euskal Federakuntzak gelditu zuen, ez omen delako posible klub batek Arabako Federakuntzan izatea adar bat (San Andres) eta beste adar bat Gipuzkoakoan (Mondra). Ezezko horri errekurtsioa aurkez dakioko, bai-

na astirik ez da egon, eta, Bastidak dioenez, Mondraren partetik borondaterik ere ez.

Jose Luis Ezkurrak, Mondrako presidenteak, ukatu egiten du borondate falta hori gertatu denik, "eskaera baztertuta geratu zen, eta hor ez zegoen denborarik gehiagotarako", esplikatzen du. Mondrak bizi dituen gorabeherekin, diru zorrak direla eta, ardua gehiagotan ibiltzeko aukera gutxi dauka klubak, Ezkurraren ustez. Horrez gain, Pedruskorekin polemikatan sartzeko intenziorik ez duela dio Mondrako lehendakariak. San Andreseko Toñinen iritziz, oster, «gola sartu digute; aurtan engainatu egin nau Mondrak».

Bi taldeen arteko frikzio puntu bat Mondrak aurtan federatu duen 2. regionaleko talde berria da. Pedruskokoan esanetan, talde hori Pedruskoko jokalarien aportazio nabarmenaz osatzekotan zeuden, baina azkenean bat bakarra joan da talde berrira. Mondraren babespean Araban jokatzen zuen jubenilen talde bat desagertu egin da aurtan, gainera, eta honen inguruan ere ikuspuntu desberdinak daude. "Jokalaria barik geratu da", dio Ezkurrak. 'Kendu egin digute', dio Toñinek.

San Andres taldekoen iritziz, Mondrak arreta gutxi eskaini die beti Pedruskoko jokalariei, nahiz eta hauek nahiko ondo moldatu diren gero inguruko taldeetan, Eskoria-tza, Aloña edo Aretxabale-tan, kasu. Toñinen ustez, gainera, "futbolari gazteen artean, onarpen hobea dauka Pedruskok Mondrak baino".

## Arabian jokatzen

**Pepe el Hincha**-ren komiketarik ateratu zuen izena San Andres auzoko taldeak: Pedrusko. Afizionatu mailan makina bat urtean jokatu ondoren, 79-80 denboraldian taldea federatu egin zen, Toñin-en eskutik. Oraindik orain, alma mater papera du Toñinek taldean.

1985ean, Arabako eta Gipuzkoako taldeak ordura arte batera zebiltzanak banandu egin ziren, Arabako Futbol Federazioa sortzean, eta Pedrusko Arabako Federazioaren orbitan geratu zen. "Taldea txiki eta umil batentzat hobe zen Araban ibiltzea, diru gutxiago, bidaia laburragoak, eta igotzeko aukera gehiago ere bai", esplikatzen digu Toñinek.

Bost urtez Arabako Preferentean ibili da Pedrusko, azken garaian San Andres izenaz. Tarte horretan, 3. mailara igotzeko gertu-gertu egon zen 88-89 denboraldian, eta beste liga batean 3. geratu ziren. Iazkoan, aldiz, jaitxi egin ziren eta aurtan 1. regionalean jokatu behar zuten, Arabako maila txikienean.



**ETXEPARE - BILINTX  
LIBURUBENDA**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**PENALTIAK**

● Zaldibarko futbito txapelketa urriaren 2an hasiko da, Maritxu Kajoiaren biharamuneko larunbatean. Antolakuntza eta gorabeherak komentatzeko bilera izan zen ostegunean Monterronen. Aurten ere, **ARRASATE PRESSEk** jarraipen berezia eskainiko dio txapelketa honi.

● K-2ra joandako espedizio atxabaltarren babesleek, Kutxak eta Astorek, gailurrik galdutako ez arren, lortutakoarekin oso pozik zeudela azaldu zuten prentsaurreko batean asteartean Donostian. Datorren urterako laguntzeko prest azaldu dira dagoeneko EITB eta Kutxa.

● Gorlako automobil igoeran, joan den igandean, eta Bergarako herriko idolo partikularra, den Aitor Zabaleta pilotoarengara ikusi ahal izan zuten afizikiak. Faborittoa, Pantxo Egozkue nafarra, 1.a izan zen lehen txanpan, baina bigarrenan, Zabaletak irabazi zuen.



**Bere debutean galdu egin zuen rugby taldeak**

Denboraldia prestatzen hasteko lehenbizio partidua joan den larunbatean jokatu zuten Arrasateko rugby-lariuek, Eibar Euki rugby taldearen aurka. lagunarteko partidu batean. Gara-gartzan, etxean, jokatu arren, Arrasatek ezin izan zuen tantorik egin eta 0-10 galdu zuten gure morrosko mondrautarrek eibartarren aurka.

Ez ziren finegi ibili rugby-lariak, baina hein handi batean entrenatzen denbora gutxi daramatelako da. Zentzu honetan, rugby taldetik entrenamenduetara oraindik azaldu ez direnei lehenbailehen hurbiltzeko eskatzen diete, egunero ari baitira entrenatzen, arratsaldeko 7etatik aurrera, kiroldegian.

Aurten hiru talde jarriko dituzte martxan rugby-zaleek: seniorrena euskal ligako 2. mailan ibiliko da (iaz kategoría galdu zuen), jubenilak ere euskal ligan jokatu du, eta nesken taldeak ere jarraituko du, eta bost talderen arteko liga batean jokatu du.

Rugbyan hasteko interesa duten gazteek entrenamenduetara hurbiltzea besterik ez daukate.

**EMAITZAK**



**Futbola**

3. maila: Balmaseda 0 - Mondra 0  
**Hurrengoak:**  
 3. maila: Hernani - Mondra Igandea, 5etan.  
 2. regionala: Mondra - Gazteak. Larunbata, Atxabalpe, 5etan.  
 Ohorezko liga jubenila: Elgoibar - Mondra. Larunbata, 11etan.

**Saskibaloia**

**Prestakuntzakoak:**  
 Arrasate 90 - At. San Sebastian 100  
 Caja Vital 68 - Arrasate 87

**Rugby**

**Prestakuntzakoak:**  
 Arrasate 0 - Eibar 10

**Pelota**

**Hurrengoak:**  
 Larunbatean, 11.30etan, kiroldegian: Arrasate - Bergara (kadeak), Arrasate - Ilunpe (binaka, jubenilak).



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



# Eskolaorduetatik kanpo, zer egin?

**Gaur** egun denbora luzea ematen dugu gure seme-alabak zein ikastetxetara bidaliko ditugun pentsatzen.

Baina bizi garen garaio-tan hau ez da nahikoa. Bere ikasketetan lagundu, ikastetxeko gestioan esku-hartu eta tutorearekin harreman estuak landu behar ditugu.

Gaur egun, guzti honeta-

tik at, aisialdia gero eta indar gehiago hartzen ari da. Gure seme-alabei eurentzako erakargarri diren aukerak hautatzen laguntzen saiatu behar diegu beraien aisialdiari zentzuna emanaz. Honek guraso eta seme-alabak elkarrekin erreflexionatzera daramatza.

Gure umeek gustora egon behar dute baina era berean

etekin bat ere lortu behar dute. Horregatik, noren eskuetan uzten ditugun jakitea beharrezkoa da, hau da, alor horietan jakitunak aukeratzeari komeni da. Nolabait, espezialista hauek eskolaz kanpoko ekintza horietarako erabiltzen den denbora helburu jakin bat eta diseinu ego-kidun plan baten barruan da-

goela ziurta diezagukete. Ez litzateke zama izan behar, erakartzen dituen zerbait baikik.

Denok izan beharko genuke argi gauza berriak eza-gutzea, beraien adineko eta intereseko jendearekin erla-zionatzea bideratzen duen ekintza dela. Ez litzateke aski izan behar gure seme-alabak ondo zainduta daudela jakitea. Hau garrantzizkoa da, baina eskolaz kanpoko ekintzak eskeintzen dituzten erakundeei hori baino gehi-go eskatu beharko diegu.

Aspektu bi bateratu behar dira: bata, norberaren zaletasunak eta gaitasunak indartzea eta bestea, denbora horretatik etekina ateratzea.

Gure umeengan hobekuntza, alor guztietan aurrera egi-tea eta eskolatik kanpo ekintza ezberdinak ikasten eta praktikatzen joatearen ideia erein behar da. Gainera, iharduera hauetan partehartzeak euren ikastetxekoak ez diren lagunak egiten lagunduko die.

Guzti honek pertsona bezala aberastu egingo ditu eta ez etorkizunean bakarrik, une honetatik bertatik baizik.

**SARO MANRIQUE DE LARA**  
**AHIZKE-CIM**  
**HEZIBIDE**



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

# RKUZ

# Sukaldeak

Sukalde integratuak

**FAGOR** 

Mitarte, 3  
Tfno-Fax: 77 04 55



FAGOR

## ALTZARIAK

ETXEKO ALTZARIAK  
DISEINUA - APAINKETA

Araba Etorbidea, 20  
Tfno - Fax: 79 23 51

## ELEKTROGAILUAK

TV - BIDEOA - SOINUA  
**expert**  Banatzaile ofiziala

Asuncion, 1  
Tfnoa: 79 10 97



XVIII. mendean kamino berriak egin beharra izan zen bailaran zehar.

## Kamino berriak

**Orain** ere errepideak eta autobideak direla eta badabil hamaika komeria, gai garrantzitsua izanik, baina ingurune honetan lehen ere izaten ziren kaminoak egin beharrak, eta bailara batek sasoi guztietan izan ditu errepideak egin beharraz albisteak.

Antzina, Madriletik zetorren kamino generala Leintz Gatzagatik barrena sartzen zen Gipuzkoan eta Mondragoetik ere pasatzen zen, Erregebidetik, Oñati eta Udanatik barrena Beasainen Nafarroatik zetorrenarekin bat egitera.

Kamino horiek harrizko galtzada gogorak ziren eta

Arrasatetik sartzen ziren Mondragoen, "Txosagorri" eta Intxaurrendotik igo Gatzeluondotik zehar Erdiko kalera jeisten ziren, beheko portaletik barrena herritik irten eta Oñati aldera egiteko.

1757ko Batzar Nagusiek, probintzian trafikoak gora egin zuela ikusita, Gatzagatik Irunerako autoentzako bide bat zabaltzea erabaki zuen, eta lan horietaz eta errepideak gero eskatzen zuen mantenimendu lanaz probintzia arduratzea ere erabaki zen, izan ere aurretik herri bakoitzak izaten zuen bere sailetan zegoen zatia- ren gastuen ardura.

Kamino horren kostua ere, oraingoena altua izaten bada, ez zen garai hartarako makala izan, 7.500.000 erriel. Gatzagan hasi eta Behobiaraino 177 km. zitu- en. Gastu horiei eta man- tenimenduari aurre egiteko, probintziarako sarreretan sei barrera jartzea erabaki zen, oraingo autopistetan bezala peajea kobratzeko.

Bestelako errepide batzuk noiz eta nola eraiki zi- ren jasotzen da Letonaren artxiboan, eta horrela, Kanpazarrerako bide zahar- ra, 1770-80 urteen artean egin zuen herriak, eta berria eta Gesalibarrerako 1866an probintziak.

## SUTONDOAN

### AZKUAGA-MENDIKO JENTILAK, MUSAKOLA- RRAK ETA GASTEIZTA- RRAK (XII)

*H*urrengo Gastei- zko feri egu- nean jokatzea erabaki zuten. Jakin zenean Kiputzen kontra Arabak jo- katu behar zutela, han ziren arabar gehienak eta Gasteiz guztia. Bai musakolar jato- rrenak ere: Biximodu, Biri- biltxo, Artalasto, Muxugorri, Txakurranka eta abar. Joku ordua baino lehenagotik, ia inguru haietan ez zen ikusten gizaburua besterik.

Aposturako baldintzen arabera, gamarratarren idiak ekin zioten lanari sua eta ga- rra zeriotea. Harria igaro be- har zen lekua latza eta lakarra zegoen; hala ere, hiru edo lau iltze egin zituztenerako, be- ren txiz, gorotz eta abarrekin bidea pixka bat gozatu zen eta idiak asko nekatuta ere, mar- ka bildurgarri ondu zuten; zer esanik ez arabar denek es- kuak mintzeraino txalotu zi- tuztela, bai idi eta bai itzaia, ondo merezi gainera hain bikain jokatu zutelako!

Korriak ontza bat urre, zuriko bateri eskaintzen zio- ten idien alde. Musakollarrak, hain diru merkea ikusirik, hartu eta hartu trabesak.

(Jarraituko du)

ARREGITAR TIBURTZIO



### Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86




- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

**ZARRAOA**  
**EL ARCA DE NOE**

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE





Argazki hau non ateratakoa den antzemateko ez da esplikazio handirik behar. Gernikako Arbolaren aurrekaldean ateratakoa da, jakina. Aurrekaldeko zortzikotea, itxura denez, Ferixa egunen baten edo egunpasa joandako andra-gizon mondrauetarrak. Ezkerretik hasita, **Domingo Abasolo** eta **Bixenta Mondragon**, Etxazuri baserrikoak, **Frutos Eraña "Kaxo"** eta **Gabina Mujika**, bere andrea, **Anjel Arregi "Axeri"** eta **Juana Etxabe**, Bedoñabe-erdikoa baserrikoak eta **Juan Zeziaga** eta **Bixenta Olalde** Osiña baserrikoak.

Lau gizonezkoak lagunak ziren, elkarrekin Zerrajerako karga-deskargan ibilitakoak zirelako. Karreterotza lana baserrikoarekin batera egiten zuten.



Mondeo

**M MUGARRI**

*Mondeo*



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Neskak behar dira Bilbon pisua osatzeko.** Tfnoa: (94) 416 01 00. Jaione B.
- **Pisua topatzeko pertsona behar da edo etxebizitza baten gela libre bat.** Dei egin goizeko 9etatik 2etara 79 16 57 tfnora. Natxo.
- **Neska bat behar da Bilbon pisua osatzeko.** Tfnoa: (94) 4 43 55 83.
- **Pisu bat salgai Calaorran.** 75 m<sup>2</sup>takoa. Erdialdekoa, eguzkitsua, ondo jantzia. Ganbara, trasteleku eta goteleduna. 4.550.000. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi ohedun logela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Torremolinosen (Malagan) apartamendu-estudioa salgai.** Jantzia, erdikaldean, moderna, 2. pisua; igerilekua eta inguruetan saloi handiak ere baditu. Tfnoa: 79 64 50.
- **Iruñean pisua behar baduzu,** guk hiru lagunentzako lekua dugu. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Garajea alokagai behar dut.** Eskola Politeknikotik gertu. Tfnoa: (94) 4 62 07 39. Astehelehenetik ostiralera. Gauzez deitu. Maribel.
- **Lehenengo mailako arkitekturako** bi kasle, mutil baten bila dabilza Antiguon pisu bat betetzeko. Tfnoa: 79 50 45.
- **Donostian pisu bat osatzeko** bi neska behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Pisua alokatzen da Donostian,** irakasle, ikasale edo enplegatuei. Merke. Tfnoa: 79 35 13.

- **Bi neska inglesa gara** eta urritik uztailerarte, pisu bat alokatuko genuke. Tfnoa: 79 90 36 (Rene-gatik galdetu).

**Lana**

- **Andre euskaldun bat** etxeko lana egin, umeak, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Ume bat** zaintzeko, esperientziadun neska prest. Arantxa. Tfnoa: 77 13 66.
- **Neska euskalduna behar** da 3 urteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 31 37. Rosa. Goizeko 9etatik 10etara edo 8etatik aurrera.
- **Pertsona nagusiak, gaixoak edo umeak zaindu** edo/eta etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Tfnoa: 79 77 94.
- **Klase partikularrak ematen dira.** O.H.O.ko maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98.
- **Esperientziadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 88 29. Julia.
- **Ingeleseko klaseak.** Maila guztiak. Talde txikiak. Tfnoa: 79 09 11. Garbiñe.

**Salerosketak**

- **Canon EOS-650 argazki kamara saltzen dut.** 35/70 Canon objektiboa. Nikolas Urizarren. Tfnoa: 79 23 60. 20'00etatik 22'00etara.
- **Alfa-Romeo 33-1.3 salgai.** SS-6049- AC. Tfnoa: 79 87 83.

- **Bitrina erakuslea salgai.** Biragarria eta igeltsu italiar modeloko argiduna. Tfnoa: 79 64 50.
- **FAGOR markako 100 litrotako termoa salgai.** Egoera eta prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Bi saltzailerentzako moduko pisua salgai.** Tiket-ak eta txanpionentzako kaxoia ditu. MINERVA markakoa. Tfnoa: 79 64 50.
- **SPECTRUM markako ordenagailua salgai.** 16 jokurekin. 15.000 PTA.. Tfnoa: 79 93 91. Joseba.
- **Uberan taberna salgai.** Erreztasun handiak. Tfnoa: 76 25 99.
- **Lehen mailako zuzenbide liburuak salgai** (Deuston erabiltzen direnak). Erabilgarriak. Tfnoa: 79 19 77. Kristina.
- **Derbi FDS (74 c.c.) salgai.** Egoera oso onean.

**Denetarik**

- **Datorren ikasturtean Bilbora egunero** arratsaldez joateko interesatuek dei egin 77 08 32 tfnora.
- **Datorren ikasturtean Gazteizera egunero goizez joateko** interesatuek dei egin 79 58 66 Tfnoa.
- **Gizon batek kartera** diru apur batekin aurkitu du. Tfnoa: 79 05 19.
- **Astero Sarrikora joateko** kotxe baten bila nabil. Lekua izanez gero deitu 79 87 36 tfnora.
- **Zorionak Karnele eta Fede, eta zuri ere bai,** Ixiar. Hori bai neskatila ederra, Garagartzarako modukoa

**Aste Gazte**

**Ikastaroak**

- **Zaldian ibiltzeko ikastaroak** Urkulun. 2 aste-takoak, egunero ordubete. Goizez nahiz arratsaldez. Matrikula: langabetu eta ikasleentzat 6.000 PTA.
- **Euskal Dantzak:** urritik abendura, ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Matrikula doan. Plaza mugatuak.
- **Alboka ikastaroa,** has-tapena eta II. maila. Urritik maiatzera larunbat goizez. Matrikula 2000 PTA, plaza mugatuak.

- **Larrua lantzeko ikastaroa,** hastapen maila. Urritik abendura, astearte eta ostegunetan, 6etatik 8etara. Matrikula 2000 (1000 ikasle eta langabetuentzat). Plaza mugatuak.
- **Zeramika ikastaroak:** ikastaro teorikoa larunbatetan eta praktikoa astegun eta larunbatetan. Urria eta abendua bitartean. Leintz Zeramika Eskolak antolatuta.
- **Bergarako UNEDek** antolatuta, EGA, hizkuntz eskakizunak, Sakontze I eta

II eta Literatura Garaikidearen Lehen Hitza Anboto kalea, 1. \_ 4. Eskuma (Erguin). Astelehenetik ostegunera 6,30tik aurrera. Inñaki.k ikastaroa. Matrikula epea: irailaren 30era arte.

**Bekak**

- **Gipuzkoako Bazkondeak** sei beka deialdi egin ditu, 5 kanpo merkataritzan arloan eta 1 gizabaliapidetan. Urtebeteko iraupena. Donostian aritzeko. Epea: irailak 22.
- **“Fundación Empresa Pública”** ren beka deialdia, 30 urtetik beherako


**“Garrantzi sozial itzela duen borroka daramate gazte in-tsumiso hauek. Horregatik, jokaera eskuzabala, ausarta eta konprometitua dela deritzot”.**

**JOXE AGUSTIN ARRIETA (APAIZA)**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

## ZER NAHIAGO?

**Pablo Marmol****“Arrasate” Hortz  
Klinikako dentista**


- Non jaio zinen? Argentinan, Rosario hirian.
- Zer botatzen duzu faltan bertatik? Lagunak.
- Zein reparazio da garestiena? Protesi fijoak.
- Egunean zenbat aldiz garbitu behar dira hortzak? Hiru bider.
- Entzun duzun azken kontzertua? Roberto Carlos, 1989an.
- Aktorea bat? Sharon Stone.
- Zer oparituko zenioke emakume bati? Bitxi bat...edo perfume bat.
- Eta gizon bati? Korbata bat.
- Inoiz egin dizuten oparirik politena? Nire alabak.
- Biziorik ba duzu? Bai: ondo jatea eta kotxeak.
- Zenbat aho ikusten duzu egunero? Hogei bat.
- Bezero berritsuak edo isilak, zer nahiago? Berritsuak.

**BERTSOAK****Oporrak**

Iru astetan iru alditan  
oporak ditugu aipatu  
Oraingo au da langille bat da  
aurrekoak bi jubilatatu  
Aldanik ondoen igarotzen  
alegin egiten degu  
Geientxuenoi edo ia denoi  
gauza bat gertatu zaigu  
Gorputza pixkat astundu eta  
kartera berriz arindu

Ilusio andiz egoten gera  
noiz iritxiko begira  
Asko ta askok egiten dute  
alde emendik urrutira  
Beste batzuek inguruetako  
itsas ertz eta mendira  
Bukatutzian diru asko gabe  
bueltatutzen gera Herrira  
Nik ala ere naiago nuke  
luzeagoak balira

MAXIMO LETONA

**LORAMENDI BIROLAK****BEHERAPENETAN GAUDE****%30**

- PRAKAK
- ZAPATILAK
- KAMISETAK
- TXANDALAK



# Iñigo Ramirez

## “Gure herria” liburu batean bildua

‘Arrasate, gure herria’ liburuak kaleratuko da laster udalaren laguntzaz. Dibulgazio lan honen egilea Iñigo Ramirez antzuolarra da. Geografia eta historian lizentizaturia da Ramirez, Eskoriatzako irakasle eskolan eta Arrasateko San Franzisko Xabier ikastolan irakaslea.

— Nola sortu zen liburu hau egiteko ideia?

— Deba Garaiko udal ezberdinen iniziatiba bat izan zen hau, 89koa, orain dela lau urtekoa. Iniziatiba hori udaletzeko euskara sailen artean sortu zen, eta guri [Irakasle eskolari] planteatu ziguten. Plangintza bat egin genuen euren asmoak eta geureak bat egiteko. Plangintza horretatik Arrasateko liburu hau egin genuen, eta orain, oso berandu, baina argitaratu egingo da.

— Ze interes du irakasle eskolak liburuan?


— Umeek herria aztertzeke zeuzkaten zailtasunak gaintitzea izan da gure proiektuetako bat. Zer gertatzen da? Irakaskuntzan, askotan herria bihurtzen da aztergai, baina ez daukagu material aproposik hori lantzen hasteko. Nolabait muga hori gaintitu nahi genuen eta liburuaren filosofia ildo horretatik doa. Lortu duguna da liburu bat ahalik eta atseginean, eskoletan ematen diren

gaiekin bat datorrena, eta ondorioz, umeak, edozein momentutan herria aztertu nahi duenean, lehendabiziko liburua hau izan dadila. Ez edukia- ren aldetik

bakarrik, metodologiaren aldetik ere egokia dela uste dut. Datuak ematen saiatzen gara, baina ez daitezela datu hutsak izan, eta hainbat jarduera ere eskaintzen ditugu hor dagoen eduki guztia lantzeko. Ez dadila prozesu memoristikoa batean geratu. Gure liburuaren helburua izango litzateke bertatik abiatzea, herria gehiago aztertzeke.

— Eskola-liburu soila da?

— Hori esatea liburu pixkat zokoratzea litzateke. Gure asmoa ez da hori izan. Badakigu kalean jende asko dagoela herriari buruzko jakinmina daukana, eta ez



daukana horrelako liburu egokirik irakurtzeko. Duzkagun liburuak agian oso eruditoak dira, zenbait mailarako ez dira aproposak, irakaskuntza mundurako, dudarik ez, ez direla aproposak. Pentsa-

tzen dugu liburu honek muga horiek gaintu egin dituela. Gero, badakigu jendeak ze zailtasun daukan euskaraz irakurtzeko, eta ze beldur. Liburu honek molde horiek apurtuko dituela uste dut. Udaletzeko itzultzailea, Karmelo Uribarren eta gu ahalegindu gara euskara erraza eta irakurgarria izaten. Eduki ilunegi edo irakurtzeko potoloegiak ahalik eta esaldi sinpleetan jartzen saiatu gara. Jendea, batez ere umeak, irakurketa erraza gertatzeko.

— Sortako lehen liburu da Arrasatekoa?

— Mankomunitateko


udaletxe guztietara pasatuko proiektua da hau. Zenbait onartua dago, eta zenbaitetan eginda dago liburuak, ez kaleratuta. Bergarako edo Oñatikoa erabiltzen dira, eta jaso ditugun irizpideengatik oso ondo dabil. Gero beste bat egin dugu, Mankomunitatekoa, orokorra. Hori inprentan dago, baina zeruko subentzioaren zain, Gabonetatik dago inprentan sartuta gezurra badirudi ere. Nik uste dut gaur hainbeste hitz egiten dela turismoaz eta, joño, hau paregabeko abiapuntua izango litzatekeela turismo kontesto horretan sartzeko. Nik esango nioke Mankomunitateari ondo daudela Epeleko zabortegia eta horrelako gauzak, baina beste esparru batzuk ere zaindu behar direla.

— Sorpresarik jaso duzu libururako informazioa biltzen?

— Ni antzuolarra izanda, aberasgarria izan da beste herri bati buruz gauzak jakitea. Nahiz eta atal guztiek sorpresatxoren bat izan da, harri durazkoa izango litzateke Arrasate sinbiosi hori gordetzen duela oraindik: zentroa, herrigunea hain industrializatuta egonda, eta oraindik handik metro gutxitara herri-bizikera konkretua badagoela. Hori poztekoa da benetan, gure kasuan, hizkuntza benetan mantentzen bada, inguru horregatik delako.

.....


**“Irakaskuntzan, askotan herria bihurtzen da aztergai, baina ez daukagu material aproposik hori lantzen hasteko”**



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

## LEHIAKETAK

## “Adibidez” erako kartel lehiaketa

HIES Ekimenak, abenduaren 1etik 23rarte egingo duen erakusketa erraldoiarentzako kartel iragarlearen lehiaketa antolatu du. Erakusketa honen izena, “Adibidez” izango da eta bertan, prebentzio, heziketa, artea eta kulturari buruzko guztia erakutsiko da. “Adibidez” proiektu zabala eta bitxia denez, kartel iragarlea originalak izan beharko du ere, gaiak, “Adibidez” proiektua adierazi nahi duena isladatu beharko duelarik: Proiektu dinamiko bat HIESa, bizitza bihurtuko duena. Partehartzaileen zorionerako, kartelaren forma-toa eta teknika libreak izango dira. Lehiaketa honen originaltasuna saria ere harrapatzen du; berau, Euskal Herriko zeruetan zehar globoz egindako bidai bat izango da. Lehiaketa honetan parte hartu nahi duen guztiak, HIES Ekimenak Arrasate Pasealekuan duen bulegoan edo bestela, 79 26 99 telefonora deituz informazio gehiago jaso ahal izango du.



Euskalherriko ikasleei zuzendutako lehiaketa da hau.

# Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarieta VIII lehiaketa martxan

**Idazle** nahiz entsaista guz-tiek, zita garrantzitsu bat du-zue laister, Jose Maria Arizmendiarietaren VIII. Lehiaketaren oinarri-arauak ka-lean baitaude.

Urtero urtero Gizabidea Fundazioak egiten duen be-zala, aurten ere jadanik par-taidetza eta maila altua duen lehiaketa antolatu du.

Gizabidea Fundazioak, 1993-94 ikasturteko Irakas-kuntza Ertaineko Euskal Her-riko ikasleei dei egiten die kultur lehiaketa honetan par-te hartzera, beti ere, Arizmendiarieta zenaren oroipena suspertu asmoz.

Urtero interes sozialeko gaien inguruko lanak burut-zen direnez, lehiaketa hon-tako lanek, «Langabezia eta Solidaritatea» gaian zentratu beharko dute aurten. Funda-

zioak ezarritako epaimahiak, lanaren originaltasuna izan-go du kontutan, eta baita es-perimentzia konkretu edo eta aipatutako gai honetan jan-tziak direnen aipamena ere. Beraz, lana egiten hasi aurretik, oso komenigarria litzate-ke ikastetxeetako irakasleek ikasle parte hartzaileak ondo dokumenta ditzaten.

Lanak, ikasmilen arabe-ra, bi taldetan banatuko dira: A maila, Batxilergo Oroko-rra, B.B.B. eta Lanbide Heziketa I-eko ikasleek osa-tuko dute eta lanaren gene-roa, «dokumental-testimonia-la» izango da. Maila hone-tako ikasleen lanen gutxie-nezko luzeera, 15 orrialde-takoa izango da. B maila, Goi-Batxilergo, Lanbide Hezike-ta II, B.B.B.ko 3. kurtsoa edo eta U.B.I.ko ikasleek osatuko

dute. Hauen lanak, entsaioak izango dira eta gutxienez, 25 orrialdetako lanak aurkeztu beharko dituzte.

Sariak ez dira batere mo-telak eta askorentzat parte-hartzeko arrazoia izan dai-tezke: A mailako lehen saria, 150.000 PTA.koa izango da, bigarren saria 75.000 PTA.koa eta hirugarrenak, 50.000 PTA.ko saria etxera-tuko du. B mailan berriz, le-hen saria 250.000 PTA.koa izango da, bigarrena 125.000 PTA. koa eta azkenik, hiru-garren saria, 75.000 PTA.koa.

Lanak bidaltzeko epea, urriaren 31n bukatuko da eta informazio gehiago nahi du-ten guztiak, helbide honetara jo dezakezue: Gizabidea Fun-dazioa, 136 Posta Kutxa (79.31.32 telefonoa), 20.550 - Aretxabaleta.

AKADEMIA

# BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

1963 **30** 1993  
URTE

## 1993-94 IKASTARO EGITARAUA

- Informatika
- Kontabilitatea
- Takigrafia
- Mekanografia
- Klase Bereizgarriak
- Euskara

### Helbide berria

Araba etorbidea, 3, 1º (ESKATU Eraikuntza) Arrasate Tel.: 79 32 16 - 79 77 13 Fax: 79 06 28

• ESAERA ZAHARRA •

*“Gerrikoa narras dago; prakak narrasago.”*

• JEROGLIFIKOA •

DDZDD

Nola etorri zarete?

• GURUTZEGRAMA •

1	2		3	4	5	6
7		8	9			
10						
11				12		
13			14	15		
16						17
18				19		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Zilarra.3. +7+13= Mondragones pilotaria. 7. Ikus 3. 10. Burutuak. 11. Zerbait erretzean sortzen dena. 12. Greziako Larisaren kontsonanteak. 13. Ikus 3. 16. Turrino. 17. Erbioa. 18. Arabako talde politiko baten. 19. (Ald.) Haztamu.

**Bertikalak** 1. Legegizon. 2. Urritasun. 3. Grina bizi-bizia. 4. Hamar pitxerka-dako suila. 5. Ataria. 6. (Ald.) Tinan. 8. Haizerauntsi. 9. Eta. 14. Ez eme. 15. Zarautz erdian.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Dirua aurreratu nahian bazabiltza, gaizki ikusten zaitut.

**Taurus** Ez bidali ezkutitz gehiago neskari, bizilekuz aldatu da eta.

**Gemini** Aprobetxatu inguruetak jai denak, asko baitatoz.

**Cancer** Zure amak erretzen duzun susmoak ditu.

**Leo** Uste ez bazenu ere, zure mutilak adarrak jarri dizkizu.

**Virgo** Lantegian alper fama daukazu.

**Libra** Haginlariari bisita egin iezaiozu, bost zulo dituzu eta.

**Scorpio** Zeure burua asko estimatzen baduzu ere, memelo hutsa zara.

**Sagitaris** Kilo batzuk argaltzea komeni zaizu.

**Capricorn** Ez sinestu albokoek esandakoa, gezurti hutsak dira eta.

**Aquarius** Hasi Maritxutarako jantzia prestatzen, laster iritsiko baita Urriaren 1a.

**Piscis** Mundu honetarako pertsona onegia zara.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• MARIAXUN OYANGURENEN GOMENDIOA •



Mariaxun dendaria da, eta dendetan euskaraz galdetzea da berak aste honetan eman nahi digun gomendioa. "Arrasaten denda gehiengotan jakingo dute euskaraz, baina jendeak lehengo hitza beti erderaz egiteko ohitura dauka hemen. Norberak euskaraz egin eta hala ere erderaz jarraitzen dute". Izatez mutrikuarra da Mariaxun, eta horretxek harritu zuen gehien orain bederatzirte Mondragoera lanera etorri zenean. "Mutrikun kalean eta dendetan ikasten zuten erdaldunek euskaraz".

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



**20 Astelehena**

8,8.30,9 Berriak  
9.30 Mondrasport  
(asteburuko kirol albisteak)

**21 Asteartea**

8,8.30,9 Berriak.  
9.30 Mondra 92-93  
(Programa bereziaren errepikapena)

**22 Asteazkena**

8,8.30,9 Berriak  
9.30 Tertulixan:  
Bosnia (errepikapena)

**23 Osteguna**

8,8.30,9 Berriak  
9.30 Zaldibar  
(Programa bereziaren errepikapena)

**24 Ostirala**

8,8.30,9 Berriak  
9.30 Monterrock berezia  
(Errepikapena)

• SOLUZIOAK •

Bidez bide.

**JEROGLIFIKOA**

9. Ta. 14. Ar. 15. Rau.  
It. 4. Usula. 5. Aiarrea. 6. Trekan. 8. Urakan.  
**Bertikalak:** 1. Abikatu. 2. Gabezia. 3. Tiaru. 17. Er. 18. Uan. 19. Taxu.  
**Horizontalak:** 1. Ag. 3. Juan. 7. Baults-

**GURUTZEGRAMA**

**ALEMANA FRANTSESA INGLESA**

93 - 94 IKASTURTEA

- Maila guztiak
- Umeak, gazteak, helduak, enpresak
- Goizez eta arratsaldez
- Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñati

**ZATUZ GURE BULEGOETARA !**

ARRASATE: Araba Etorb., 4  
Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54  
9etatik 1etara — 4etatik 8etara

OÑATI: Olakua, 14  
Tfnoa: 71 60 00  
4etatik 8etara




**BIONA**

Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

# IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.  
Martxan jarri ekipamendurik apartena.  
Martxan jarri segurtasun neurri erosoena.  
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.

**300.000** Pezeta\*  
**BITARTEKO  
DESKONTUA**



\*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

**OPEL** 

**Z A I N G A U Z K A Z U**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Guipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria  
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAN

**TALLERES NORTE**

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.